

Ospitale Estatistika

Emaitzen analisia

Aurkibidea

1. SARRERA	2
2. OSPITALEAK	5
3. HORNIDURA	6
3.1. Oheak	6
3.2. Kirurgiako eta anbulatorioetako hornidura	7
3.3. Goi-teknologiako ekipoak	8
4. LANGILEAK.	9
5. OSPITALEKO ASISTENTZIA-JARDUERA	10
5.1. Ospitalizazio arloa (ospitalizatuta dauden gaixoena) helburuaren arabera	10
5.1.1. Gaixo akutuentzako ospitaleetan ospitalizatzea	10
5.1.2 Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan ospitalizatzea	12
5.1.3 Ospitale psikiatrikoetan ospitalizatzea	12
5.2. Kanpoko kontsultak	12
5.3. Larrialdiak	13
5.4. Kirurgia jarduera	14
5.5. Amatasuneko jarduera	16
6. JARDUERA EKONOMIKOA	17
6.1. Gaixoak erregimen ekonomikoaren arabera	17
6.2. Gastua	18
6.3. Diru-sarrerak	20
7. ADIERAZLEAK. NAZIOARTEKO ALDERAKETAK	20
7.1. Oheak 1.000 biztanleko	21
7.2. Okupazio-portzentajea	22
7.3. Ospitaleetako egonaldien batez besteko iraupena	23
7.4. Errotazio-indizea	24
7.5. Zesarea bidezko ebakuntza kirurgikoak, 1.000 jaiotzako	25
7.6. Ospitaleetako arretak BPGarekiko sortutako gastu osoa (%)	25

Ospitale-estadistika

1. Sarrera

Ospitaleen gaineko estatistika, ospitaleez kanpoko estatistika, asistentzia mediko-farmazeutikoko aseguru libreko entitateen estatistika eta ospitaleetako erikortasun-estadistika 2005/2008 Euskal Estatistika Planean jasotzen diren osasun eta gizarte babeseko estatistiketan sartzen dira.

EUSTATEk, Osasun Sailaren laguntzarekin, 1984. urteko datuak hartuta lehenengo ospitale-estadistika egin zuenetik bere helburu nagusia beti izan da Euskal Autonomia Erkidegoan ospitale-sektoreko asistentziari eta ekonomiari buruzko informazioa ematea, Erkidegoan dauden ospitale-zentro publikoak eta pribatuak aintzat hartuz.

Oro har, ospitaleetako asistentzian arreta emateko mota bi daude: batetik, garrantzitsuena eta gainerakoetatik bereizten dena, ospitalean sartzea (ospitalizatzea) behar duten gaixoentzako osasun-asistentzia eta bestetik, gero eta garrantzi gehiagorekin, anbulatorioetako asistentzia batez ere ospitalizatzerik behar ez duten patologiak dituzten kanpoko gaixoentzat.


1984. urtean lehenengo aldiz egin zenetik 2003. urtera arte Ospitale-Estatistikak ospitalizatzearen esparruan izan duen jardueraren bilakaeran hurrengo ezaugarriak eman dira: ohe kopurua etengabe murrizten joan da (1984. urtean 11.020 ohe zeuden eta 2003. urtean 7.985), batez besteko egonaldia gutxitu egin da (1984. urtean 13,4 egunekoa zen eta 2003an 8,7 egunekoa), okupazio-indizea gehitu egin da (%76,9tik %82,3ra) eta ohe bakoitzean gaixo kopuru handiagoari eman zaio arreta (21etik 34,7ra).

Ospitalizatzea beharrezkoa izaten den kasuak gutxitzen joan dira eta egonaldiak ere murrizten joan dira hurrengoei esker: medikuntza-zientzia aurreratu egin da, anbulatorioetan arreta ematea ahalbidetu duten tratamendu mediko eta prozedura kirurgiko berriak garatu dira, anbulatorioetako kontsultak gehiago erabili dira gaixoaren jarraipenerako, eta ospitalizatzerako baino lehen ospitalean egoteko beste aukera batzuk erabili dira (etxean ospitalizatzea eta eguneko ospitalea).

Ospitalizatzea ez den beste esparru batzuetako gero eta jarduera handiagoa islatzen duten datu esanguratsuenen artean, azken hamahiru urteetan (1991-2003), hauexek daude: anbulatorioetako prozedura kirurgikoen gehikuntza, aldi horretan laukoiztuz; larrialdietan egon diren kasuak %61,9 gehitu dira eta anbulatorio-ospitaleetako kontsultak %51,6.

Horrela, ospitale-jarduerak bilakaera izan du betiere irizpide jakin batzuk jarraitu ondoren: baliabideak modu eraginkorragoan erabiltzea, gaixoak ospitalean ematen dituen egunak murriztea (baita agente infekziosoen eraginpean egoteko egunak ere) eta ospitaleetako ez den beste asistentzia-esparru batzuk bultzatzea (anbulatorioetako kirurgia, kanpoko kontsultak eta larrialdiak).


1. grafikoa: Ospitaleetako asistentzia-jardueraren bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoan. 1984-2003



Iturria: Ospitale-estatistika.

Urte arteko hazkundera aintzat hartuta, ospitaleetako gastuaren bilakaera ez da izan uniformea 1984-2003 aldian. Ekonomia orokorrarekin erkatuz gero, ospitale-sektoreko hazkunderaren erritmoa BPGaren hazkunderatik gora egon zen lehenengo hamarkadan (1984-1993), baina hortik aurrera ospitaleetako gastuaren euspen aldia hasi zen eta 2000. urtera arte BPGetik beherako hazkundera balioekin egon zen; urte horretan berriz gelditu zen BPGaren hazkunderatik gora.

2. grafikoa: Ospitaleetako urteko gastuaren eta BPGaren aldaketa (urteko prezioetan). 1984-2003 (%)



Iturria: Ospitale-estatistika eta kontu ekonomikoak (Eustat).

Jarraian ematen den azterketan, 2003. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan zeuden 44 ospitaleetako (publikoak eta pribatuak) arloetan garatu diren jarduerak aztertzen dira, baita jarduera horiek azken bost urteetan (1999-2003) izan duten bilakaera ere.

Aurrerapen gisa, 2003. urtean ospitale-sektoreak zituen datu azpimarragarrienak laburtzen ditugu:

- Euskal Autonomia Erkidegoan 44 ospitale zeuden (aurreko urtean baino bat gutxiago); eta hauetan 7.985 ohe zeuden, hau da, %1,5 gutxiago.
- Ospitalizatzeko esparruko oinarritzko adierazlearen arabera ohe bakoitza gehiagotan erabili da: okupazio-indizea gehitu egin da (%81,9tik %82,3ra), ohe bakoitzean arreta eman den gaixo kopurua gehitu da (33,5etik 34,7ra 2003. urtean) eta ospitaleetako batez besteko egonaldia gutxitu dira (2002. urtean 8,9 egun eta 2003an 8,7).
- Gehitzeko joera horrekin jarraituz, azken urteetan erditzeak %5,8 gehitu ziren eta ume bat baino gehiagoko erditzeak %12,9.
- Larrialdietan arreta eman zitzaizkien kasuen kopurua %4,3 gehitu zen, aitzitik gaixoa ospitalizatzeko behar izan zuten larrialdien ehunekoa (%13) jaitsi egin zen.
- Kanpoko kontsultak 2,1 milioira igo ziren, hau da, %4,1 gehitu ziren; izan ere, 2003. urtean larrialdien ostean gehien gehitu ziren asistentzia-jarduerak kontsulta hauenak izan ziren.
- Ebakuntza kirurgikoak %2,3 gehitu ziren, baina anbulatorioko kirurgia handiek are gehikuntza handiagoa izan zuten (%4,6).
- Ospitaleetako osasun-gastua 1.318 milioi euroraino igo zen, aurreko urtean baino %7,4 gehiagorekin geldituz. Beraz, gastu hori ondoz ondoko hirugarren urtez Euskal Autonomia Erkidegoaren BPGaren gehikuntzatik (%5,1) gora gelditu zen.
- Ospitaleetako osasun-sektorean 19.887 langile izan ziren (aurreko urtean baino 171 gehiago), Euskal Autonomia Erkidegoan lanean zegoen biztanleriaren %2,2.

1. taula: Ospitaleetako aldagai nagusien bilakaera. 1999-2003

	2003	2002	+03/02	1999	+03/99*
Baliabideak					
Ospitale-kopurua	44	45	-2,2	51	-3,6
Langileak, guztira	19.887	19.716	0,9	19.070	1,1
-Osasun-langileak	15.008	14.832	1,2	14.053	1,7
--Medikuak	4.180	4.077	2,5	3.844	2,1
--Erizainak	5.633	5.585	0,9	5.240	1,8
--Bestelako osasun-langileak	5.195	5.170	0,5	4.969	1,1
-Gainerako langileak	4.879	4.884	-0,1	5.017	-0,7
Funtzionatzen zuten oheak	7.985	8.110	-1,5	8.335	-1,1
Asistentzia-jarduera					
Gaixo-sarrerak	278.185	272.818	2,0	270.446	0,7
Batez besteko egonaldi-egunak	8,7	8,9	-2,2	9,0	-0,8
Gaixoen altak	277.387	271.944	2,0	270.538	0,6
Kanpo-kontsultak	2.122.406	2.038.678	4,1	1.908.308	2,7
Artatu ziren larrialdiak	1.043.230	1.000.622	4,3	894.461	3,9
Kirurgia-ebakuntzak	214.028	209.177	2,3	191.889	2,8
Erditzeak	19.191	18.137	5,8	16.864	3,3
Jarduera ekonomikoa (euroak, milakotan)					
Gastua, guztira	1.318.117	1.227.250	7,4	1.019.347	6,6
-Gastu arruntak	1.257.624	1.178.018	6,8	967.449	6,8
--Langileria-gastuak	807.164	763.431	5,7	637.722	6,1
--Bestelako gastu arruntak	450.460	414.586	8,7	329.727	8,1
-Inbertsioa	60.493	49.232	22,9	51.897	3,9
Sarrerak, guztira	1.229.149	1.161.050	5,9	969.847	6,1
-Sarrera arruntak	1.200.097	1.130.550	6,2	943.409	6,2
--Salmentak	1.193.870	1.122.503	6,4	942.579	6,1
--Diru-laguntzak	6.227	8.045	-22,6	829	65,6
-Kapital-sarrerak	29.052	30.500	-4,7	26.439	2,4
Adierazle ekonomikoak					
Gastua/biztanle (eurotan)	641	596	7,6	465	8,4
Gastua/BPG	2,8	2,7	-	3,2	-

* Urteko batez besteko tasa metatua

Iturria: Ospitale-estatistika.

2. Ospitaleak

Euskal Autonomia Erkidegoak 44 ospitale izan zituen 2003. urtean, aurrekoan baino bat gutxiago Gipuzkoako ospitale pribatu bat itxi egin zelako. Lurraldeka, ospitale horietako ia erdia (22) Bizkaian zeuden, 15 Gipuzkoan eta 7 Araban.

Zentro funtzionala (hau da, zentroa kudeatzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa) eta horren xedea (baliabide gehienak zein asistentzia-jardueratarako erabiltzen dituen) aintzat hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoak 18 ospitale publiko zituen; horietako 11 gaixo akutuenak, 3 egonaldi ertain eta luzekoak eta 4 psikiatrikoak. Bestalde, 26 ospitale pribatu zeuden: 19 gaixo akutuenak, 2 egonaldi ertain eta luzekoak eta 5 psikiatrikoak.

2. taula: Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleak, ohe kopuruaren arabera

	Oheak				
	Guztira	<= 99	100-199	200-499	>=500
Guztira	44	19	13	9	3
Publikoa					
Akutuen ospitaleak	11	1	4	3	3
Egonaldi ertain eta luzekoak	3		2	1	
Psikiatrikoak	4		1	3	
Pribatua					
Akutuen ospitaleak	19	15	4		
Egonaldi ertain eta luzekoak	2		2		
Psikiatrikoak	5	3		2	

Iturria: Ospitale-estadistika.

Tamainari dagokionez ospitale pribatuek publikoek baino ohe kopuru¹ handiagoa badute ere, pribatu gehienak (18) 100 ohe baino gutxiagoko ospitaleen kategorian sartzen dira; aitzitik, publikoen kasuan eta zentro bakarra salbuespen izanik, gainerako 17etako gehienak 100-199 oheko (7 ospitale) eta 200-499 oheko (7 ospitale) kategorietan sartzen dira. Bestalde, 3 ospitale handienak publikoak dira eta gaixo akutuentzat gainera.

Estatuan ere ospitale txikienak (99 oheraino) dira ugaritsuenak; gero batez beste 100-199 eta 200-499 ohe dituztenak daude eta azkenik handienak (500 ohe baino gehiago). Hain zuzen, sektore publikoa azken kategoria honetan nagusitzen da.

3. taula: Estatuko ospitaleak, ohe kopuruaren arabera

	Oheak				
	Guztira	<= 99	100-199	200-499	>=500
Guztira	774	345	209	146	74
Publikoa	297	61	79	93	64
<i>Estatuko Osasun Sistema</i>	211	24	55	73	59
<i>Beste zentro publiko batzuk</i>	86	37	24	20	5
Pribatua	469	282	128	50	9
Defentsa Ministerioa	8	2	2	3	1

Iturria: Ospitaleko nazio katalogoa

3. Hornidura

3.1. Oheak

Ohe kopurua ospitaleetako baliabide materialak neurtzeko datu garrantzitsua da, betiere ospitaleratuta dauden gaixoei arreta emateko; alabaina, ohe kopurua aintzat hartzen denean garrantzitsua den beste datu bat jaso gabe uzten da: ambulatorioetan kanpoko gaixoei arreta ematearena, alegia. Hori dela bide, aurrerago ambulatorioetako diagnostiko eta tratamendu zereginekin lotutako beste hornidura mota bat aztertuko dugu.

2003. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetan 8.409 ohe zeuden, eta horien %95 erabili egin ziren (7.985). Horniduraren %68,2 ospitale publikoetakoa izan zen eta %31,8 pribatuetakoa; hortaz, ospitale-jardueretan sektore publikoa da nagusi.

1. Tamainaren sailkapena ospitalei buruzko nazio katalogoaren arabera egin da.


Asistentziarako helburuaren arabera, gaixo akutuentzako ospitaleetan oheen %69,1 erabili ziren, psikiatrikoetan oheen %22,5 eta egonaldi ertain-luzeetarako zentroetan gainerako %8,5.

Aurreko urtearen aldean ohe kopurua %1,5 gutxitu zen; zentroen helburua aintzat hartuta, psikiatrikoetako ohe kopuruak (%-6,2) gaixo akutuentzako zentroenak (%-2,1) baino beherakada handiagoa izan zuen. Egonaldi ertain eta luzeko zentroetako ohe kopurua, ordea, gehitu egin zen (%6,2).

Azken bost urteetan (1999-2003) ohe kopuruak izan duen bilakaeran azpimarratzekoa da 1985. urtetik aurrerako gutxitzea, 1999. urtean 8.335 ohe zeudelako baina 2003an 7.985. Beherapen hori %4,2koa izan zen eta batez ere ospitale pribatuetan eman zen (%-13,2). Ospitaleen helburuak aintzat hartuta, beherapen hori egonaldi ertain-luzeko ospitaleetan izan zen nabarmenagoa (%-15,3).

ELGEko beste herrialde batzuetan ere eman da orokorrean ohe kopuruaren beherapena², besteak beste, ospitalizazio egunak gutxitzeko aukera ematen duten medikuntzako teknologia berriak garatu direlako, osasun-gastuari eusteko politikak daudelako eta ospitalizatu beharrean beste aukera batzuk sortu direlako: anbulatorioetako prozedura kirurgikoen gehikuntza eta etxeko ospitalizazioa.

3. grafikoa: Europako gaixo akutuentzako ohe kopuruaren bilakaera, 1.000 biztanleko. 1987-2002



Iturria: ECO-SALUD OCDE 2004, 3. edizioa eta Ospitale-Estatistika

3.2. Kirurgiako eta anbulatorioetako hornidura

2003. urtean 195 operazio-gela erabili ziren (119 ospitale publikoetan eta 76 pribatuetan), hau da, 3 operazio-gela gutxiago erabili zen (4 gutxiago sektore pribatuan eta 1 gehiago publikoan); halaber, urte horretan 40 erditze-gela erabili ziren, hau da, aurreko urtean baino 1 gehiago, sektore pribatuan erditze-gela berri bat ireki zelako.

4. taula: Kirurgiako eta anbulatorioetako hornidura, 2003

	Guztira	Publikoak	Pribatuak
Funtzionatzen zuen zuzkidura			
Funtzionatzen zuten oheak	7.985	5.445	2.540
Inkubagailuak	103	87	16
Ebakuntza-gelak	195	119	76
Erditze-gelak	40	26	14
Kanpo-konsultetarako gelak	878	568	310
X izpiko gelak	166	120	46

Iturria: Ospitale-estatistika.

Kanpoko konsultetarako 878 gela daude (568 ospitale publikoetan eta 310 pribatuetan), baina azpimarratzekoa da hornidura hauek etengabe ari direla gehitzen ospitaleetako jardueren artean anbulatorioetako kontsultek gero eta garrantzi gehiago dutelako. Aurreko urtearen aldean, sektore publikoan 9 gela gehiago izan zen eta pribatuan 4 gehiago.

3.3. Goi-teknologiako ekipoak

Diagnostikoak emateko medikuntza-teknologiari dagokionez ospitaleetan Ordenagailu bidezko Tomografia Axialeko proba egiteko 30 unitate zeuden (2002an baino 2 gehiago), 19 ospitale publikoetan eta 11 pribatuetan.

Erresonantzia magnetikorako hornidura, litotrizia unitateak, hemodinamika-gelak eta tentsio handia emateko unitateak denak gehitu ziren unitate bat.

Angiografia digitaleko ekipoei eta gammaganberei dagokienez ez zen kopuru aldaketarik egon aurreko urtearen aldean.

5. taula: Goi-teknologiako ekipoak, 2003


	Guztira	Publikoak	Pribatuak
Funtzionatzen zuen zuzkidura			
OTako unitateak	30	19	11
Erresonantzia magnetikoa	16	3	13
Litotriziako unitateak	5	1	4
Hemodinamikako gelak	9	6	3
Angiografia digitala	11	9	2
Gammakamerak	12	7	5
Megatentsioko unitateak	11	8	3
Kobalto-bonba	3	2	1
Azeleradore lineala	8	6	2

Iturria: Ospitale-estatistika.

4. Langileak.

2003. urtean ospitaleen sektorean 19.887 langile izan ziren, aurreko urtean baino 171 gehiago. Langile horien artean %75,5 pertsonal sanitarioa zen eta %24,5 pertsonal ez-sanitarioa.

4. grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko pertsonal sanitarioaren banaketa (kopurua), lanbide-kategoriaren arabera




Iturria: Ospitale-estatistika.

Pertsonal sanitarioaren barruan 4.180 langile medikuek ziren, 5.633 erizaintza esparruko langileak eta 5.195 beste zeregin sanitario batzuetakoak. 2002. urtearen aldean, medikuen kopurua izan zen gehien gehitu zena (103 pertsona gehiago).

Dedikazio osoko baliokidetasunean (DOB) lan egin zutenek 1.000 biztanleko 6,51 izan ziren (aurreko urtean 6,46). Medikuen kasuan, 1.000 biztanleko 1,43 zeuden DOBean; aitzitik 2002. urtean 1,39.

Ospitaleetako langileen %78,2 Osakidetzako zentroetan zegoen lanean eta gainerako %21,8 ospitale pribatuetan. Ospitaleetako langileak zentroaren asistentziarako helburuaren arabera sailkatuz gero gehienek (%88,4) gaixo akutuentzako ospitaleetan lan egiten dutela ikusiko genuke; gainerako %11,6ari dagokionez, %7,2ak psikiatrikoetan egiten du lan eta %4,3ak egonaldi ertain-luzeko ospitaleetan.

Azken bost urteetan (1999-2003) ospitaleetako langile kopurua %4,3 gehitu da. Gehikuntza hori, batez ere, pertsonal sanitarioan eman zen (%+6,8) eta bereziki medikuen eta erizaintza esparruko langileen kategorietan. Pertsonal ez-sanitarioaren kopurua %2,8 jaitsi da aldi horretan.

5. grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko langileen bilakaera, kategorien arabera. 1999-2003


Iturria: Ospitale-estatistika.

Medikuen kategorian izan ezik, sektore honetan emakumea da nagusi. Are gehiago, emakume kopurua nabarmen gehitu da (%+32,8) azken bost urte hauetan; eta dagoeneko nagusi dira analisi klinikoaren eta errehabilitazio esparruetan.

5. Ospitaleko asistentzia-jarduera

5.1. Ospitalizazio arloa (ospitalizatuta dauden gaixoena) helburuaren arabera

Ospitaleko alta (ospitaleratu eta gutxienez gau bat igarotzen duen gaixoari emandakoa dela kontuan hartuta) neurri garrantzitsua da ospitaleko asistentzia-jarduera neurtu behar denean, batez ere ospitaleko osasun-asistentziaren arlo funtzional ezberdinetan ospitalizatuta dauden gaixoei tratamendua eta diagnostikoa emateari dagokionez.

Behin baino gehiagotan aipatu bezala, ospitaleetako oinarriko adierazleek azken bost urteetan (1999-2003) bilakaera positiboa izan dute ospitaleko asistentziaren eraginkortasuna hobetzean. Aldi horretan ohe kopurua gutxitu bada ere (%-4,2) alta kopurua %2,5 gehitu egin da, batez besteko egonaldia gutxitu egin da (1999. urtean 9 egun eta 2003an 8,7), okupazio-indizea gehitu egin da eta ohe bakoitzean gaixo gehiagori eman zaio arreta (32,5etik 34,7ra 2003. urtean).

Ospitale-prozesuak ezberdinak dira gaixo bakoitzaren patologiaren arabera; bada, horrenbestez, ospitalizazioaren adierazleek emandako indormazioa ere ezberdina izango da ospitale bakoitzaren asistentzia-helburuaren arabera: gaixo akutuentzako ospitaleak, egonaldi ertain-luzeko ospitaleak eta ospitale psikiatrikoak.

5.1.1. Gaixo akutuentzako ospitaleetan ospitalizatzea

Gaixo akutuentzako ospitaleetan dago ospitale-jarduera gehiena. Ospitale hauetan eman ziren 2003. urteko ospitalizazio guztien %96,7; hauetako 196.328 (%73) sektore publikoan izan ziren eta 72.142 pribatuan.

Gaixo akutuen patologiei arreta ematen dieten zerbitzuetako altak (medikuntza, kirurgia orokorra, traumatologia eta ortopedia, tokoginekologia, pediatria eta zainketa intentsiboak) jardueraren %96,7 izan ziren ospitale horietan. Ospitaleko alten arrazoien artean hauexek aipa daitezke: %93,9 sendatzeagatik, %3 heriotzagatik eta gainerako %3,1 lekualdatzeagatik edo beste arrazoi batzuegatik.

Aurreko urtearen aldean, gaixo akutuen ospitale bat ixtearen ondorioz sektore pribatuan asistentzia-jarduera gutxitu egin zen; aitzitik sektore publikoan gehitu egin zen (ospitalizazioak %+2,6, altak %+2,7 eta egonaldiak %+0,2).

Ezberdintasunak gorabehera, ospitale publikoek eta pribatuak biek izan dute ospitaleetako oheen aprobeixamendua areagotzeko joera. Izan ere hori erakusten dute ospitaleetako jardueraren indizeek: batez besteko egonaldiaren beherakada, ohe bakoitzean arreta eman zaion gaixo kopuruaren gehitzea (errotazio-indizea) eta okupazio-indizearen gehitzea.

Helburu hau duten ospitaleak gaixo kopuru handiena dute, baina era berean heriotza-tasa gordin txikiena ere badute. 2003. urtean, gaixo akutuen ospitale-unitate batean zeuden pertsonen artean %3a hil egin zen; kopuru hori ospitale psikiatrikoetakoa (%3,2) eta egonaldi ertain-luzeko zentroetakoa (%23,1) baino txikiagoa izan zen.

6. taula: Ospitalizazioko jardueraren bilakaera eta funtzionamenduaren adierazleak gaixo akutuen ospitaleetan. 1999-2003

	2003	2002	+03/02	1999	+03/99	+03/99*
Gaixo akutuen ospitaleak						
Erabiltzeko moduan dauden oheak	5.521	5.640	-2,1	5.663	-2,5	-0,6
Ospitalizazioak	269.118	264.222	1,9	260.331	3,4	0,8
Altak	268.317	263.361	1,9	260.362	3,1	0,8
Egonaldiak	1.558.469	1.575.825	-1,1	1.529.768	1,9	0,5
Batez besteko egonaldiak	5,8	6,0	-3,3	5,9	-1,7	-0,4
Okupazio-indizea	77,3	76,5	1,0	74,0	4,5	1,1
Errotazio-indizea	48,6	46,7	4,1	46,0	5,7	1,4
Heriotza-tasa gordin (%)	3,0	3,0	0,0	2,9	3,4	0,9
Gaixo akutuen osp. Publikoak						
Erabiltzeko moduan dauden oheak	4.209	4.210	0,0	4.097	2,7	0,7
Ospitalizazioak	196.976	191.963	2,6	190.175	3,6	0,9
Altak	196.328	191.121	2,7	189.978	3,3	0,8
Egonaldiak	1.298.781	1.295.833	0,2	1.214.233	7,0	1,7
Batez besteko egonaldiak	6,6	6,8	-2,9	6,4	3,1	0,8
Okupazio-indizea	84,5	84,3	0,2	81,2	4,1	1,0
Errotazio-indizea	46,6	45,4	2,6	46,4	0,4	0,1
Heriotza-tasa gordin (%)	3,6	3,5	2,9	3,3	9,1	2,2
Gaixo akutuen osp. Pribatuak						
Erabiltzeko moduan dauden oheak	1.312	1.430	-8,3	1.566	-16,2	-4,3
Ospitalizazioak	72.142	72.259	-0,2	70.156	2,8	0,7
Altak	71.989	72.240	-0,3	71.989	0,0	0,0
Egonaldiak	259.688	279.992	-7,3	315.535	-17,7	-4,8
Batez besteko egonaldiak	3,6	3,9	-7,7	4,5	-20,0	-5,4
Okupazio-indizea	54,2	53,6	1,1	55,2	-1,8	-0,5
Errotazio-indizea	54,9	50,5	8,7	44,9	22,3	5,2
Heriotza-tasa gordin (%)	1,5	1,6	-6,3	1,6	-6,3	-1,6

* Urteroko batez besteko tasa metatua
 Iturria: Ospitale-estatistika.

5.1.2 Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan ospitalizatzea

Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan ospitalizatutako gaixoen sarri gaixotasun kronikoak izaten dituzte, eta ondorioz gaixo akutuen ospitaleetan baino batez besteko egonaldi luzeagoa izaten da.

2003. urtean gaixo batek batez beste 32,4 egun egiten zituen ospitalean; kopuru hori 89 eguneraino luzatu zen ospitale pribatuen kasuan baina ospitale publikoetan 22,2 egun bakarrik egiten ziren.

Batez besteko handi horren ondorioz, ohe bakoitzean arreta eman zaion gaixoen txandakatzea ere gaixo akutuentzako ospitaleetan baino askoz txikiagoa da (12,5 sektore publikoan eta 4 pribatuan); era berean, 6.231 gaixok jaso dute ospitaleko alta, hau da, soilik ospitalizatuta egon diren gaixo guztien %2,2ak.

Alabaina, ospitaleetako oheak gaixo akutuen ospitaleetako okupazio-portzentaje handiagoa izan zuten (%83,3), eta ospitale pribatuen kasuan %96,5era iritsi zen portzentaje hori.

Heriotza-tasa gordina ere handiagoa da, eta gero eta handiagoa zentro motaren arabera. Ospitale pribatuetako alta guztien erdia baino gehiago (%56) gaixoa hil delako eman ziren, baina publikoetan proportzio hori %17,2raino murriztu zen.

Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan heriotza-indize handia dago, urritasun kronikoa duten gaixoen patologia jakin batzuk dituztelako eta gaixoen adinekoak izaten direlako (batez ere ospitale pribatuetan), eta orduan arreta geriatriko etengabea behar dute.

5.1.3 Ospitale psikiatrikoetan ospitalizatzea

Psikiatrikoetan, egonaldi laburreko ospitalizazio-unitateetan buru-nahastea duten gaixoei ospitale-arreta ematen zaie, eta egonaldi luzeko ospitalizazio-unitateetan buru-alterazioak edukitzean zaintza psikiatrikoak behar dituzten gaixoei³.

Oro har, ospitale psikiatrikoek batez besteko egonaldi luzeenak izaten dituzte. Zentro horietan batez beste 225 egun egoten dira gaixoen. Gaixoa ospitalizatuta dagoen ospitale-unitatea zein motatakoa den kontuan hartuz gero batez besteko hori 496 egunera gehitzen da egonaldi luzeko unitateetan ospitalizatuen kasuan, baina egonaldi laburreko unitateetan ospitalizatuak 30 egun baino ez dira egoten.

Zentro motaren arabera, batez besteko egonaldia zentro pribatuetan publikoetan baino luzeagoa da (349 egun eta 156 egun, hurrenez hurren); halaber, zentro pribatuetako egonaldi luzeko ospitalizazio-unitateetan ospitalizatutako gaixoen kopurua handiagoa da.

Ohe bakoitzeko dagoen gaixoen mugimendua eskasa da: urtean batez beste 1,6 gaixo mugitu dira. Okupazio-indizea handiagoa da gainera (%96,2koa ospitale publikoetan eta %98,2koa pribatuetan).

5.2. Kanpoko kontsultak


Larrialdien ostean, gehien gehitu den asistentzia-jarduera kanpoko kontsultena da. 2002. urtearen aldean %4,1 gehitu dira kontsulta horiek, eta EAEKo ospitaleetan 2.122.406 kontsultari eman zitzaion arreta. Zentroaren arabera, ambulatorioetako jardueraren gehikuntza hori ospitale publikoetan (%4,6) pribatuetan (%2,5) baino handiagoa izan zen.

Kanpoko kontsulter %77,8 ospitale publikoetan egin ziren eta %22,2 pribatuetan. Bestalde, gaixo akutuen ospitaleetan ambulatorioko jardueraren %97 hartzen da.

3. Atal honetan ez da sartzen gaixo akutuentzako ospitaleetako beste zerbitzu batzuetan beste patologia batzuen ondorioz ospitalizatu diren gaixoei emandako arreta psikiatrikoa, jarduera hori "gaixo akutuentzako ospitaleetan ospitalizatzea" izeneko atalean sartu delako.

Kontsulta gehienak barne-medikuntzan eta espezialitate medikoetan (%30,5) eman ziren, gero kirurgia orokorrean eta espezialitate kirurgikoetan (%26,1) eta, kopuru askoz txikiagoarekin, traumatologian eta ortopedian (%16,7%) eta tokoginekologian (%8,5). Dena den, ospitale pribatuetan banaketa hau ezberdina da, hauetan traumatologia eta ortopedia direlako kontsulta ugarienak.

6. grafikoa: Kanpoko kontsultak, Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetako zentro funtzionalaren eta espezialitateen arabera (%)




Iturria: Ospitale-estatistika.

5.3. Larrialdiak

Azken bost urteetan (1999-2003) gehikuntza handiena izan duen ospitaleetako asistentzia-jarduera larrialdiena izan da; 2003. urtean 1.043.230 larrialdi-kasu izan ziren eta, beraz, jarduera hau %4,3 gehitu zen (2002. urtean bezala).

Asistentzia mota honen %99,5 gaixo akutuen ospitaleetan ematen da; horrela, mila biztanle bakoitzeko 507 (bitik bat) ospitaleren bateko larrialdi zerbitzura joan ziren. Larrialdi kasuen %86,4ari ospitale publikoan eman zitzaizen arreta eta %13,6 pribatuan.

7. grafikoa: Ospitaleetan 1.000 biztanleko izan den larrialdi kopuruaren bilakaera. 1995-2003




Iturria: Ospitale-estatistika.

Mila biztanleko eta urteko larrialdi kopuruak ere (maiztasun-indizea) erakusten du gero eta erabiltzaile gehiago doala ospitale bateko larrialdi zerbitzura osasun-asistentzia jasotzeko. Azken zortzi urteetako bilakaera geroz eta handiagoak horrelaxe egiaztatzen du. Izan ere, 1995. urtean batez beste 1.000 biztanletik 369 larrialdietara joaten zen; bost urte geroago 442 biztanle eta 2003. urtean 507. Larrialdietara joateko maiztasun hau handia dela ematen badu ere, beste autonomia erkidego batzuen aldean ez da hain handia. INEk (2001. urtean) egindako *Estadística de Indicadores Hospitalarios* lanaren arabera⁴ Euskal Autonomia Erkidegoa hamabigarren postuan dago; hain zuzen, EA Eren aurretik hauek daude: Balear Uharteak, lehenengo postuan dagoelako (744 larrialdi 1.000 biztanleko), Katalunia (654) eta Madril eta Valentzia 533 eta 529 larrialdirekin hurrenez hurren. Aipatu guztiak daude Euskal Autonomia Erkidegoak 2003. urtean izandako 507 larrialdi kopuruaren gainetik.

Ospitalizazioa ekarri duten larrialdiak

Ospitaleetako larrialdi zerbitzuetako jarduerak gora egiten du; baina, aurreko urtearen aldean, ospitalizazioa dakarren kasu kopuruak beherantz egin du aurreko urteetako joerarekin jarraituz (1995ean %15,1 eta 2003an %13).

8. grafikoa: Gaixo akutuen ospitaleetan ospitalizatzea dakarren larrialdi kopuruaren bilakaera. 1995-2003



Iturria: Ospitale-estatistika.

Larrialdiak %49,1 izan ziren, edo beste era batera esanda, gaixoa ospitalizatzea dakarten kasuen ia erdiak larrialdi baten ondorioz sortu dira eta, gainera, hori gero eta gehiago ari da gertatzen ospitale publikoetan (%59,8) pribatuetan baino (%19,7). Ospitale pribatuetan ospitalizazio gehienak programatuak dira.


5.4. Kirurgia jarduera

2003. urtean 214.028 ebakuntza kirurgiko egin ziren EA Eko ospitaleetan (aurreko urtean baino 4.851 gehiago); ondorioz, termino erlatiboetan, Euskal Autonomia Erkidegoko 1.000 biztanletik 104k ebakuntza kirurgikoren bat izan zuen. Kasu gehienetan (%85,4) ebakuntzak programatuak izan ziren eta soilik %14,6tan izan ziren premiazko ebakuntzak.

4. INE. Estadística de Indicadores Hospitalarios 2001.

Ebakuntza kirurgiko guztien artean, 114.460k ospitalizazioa ekarri zuten (%53,5) eta %46,5ak ambulatorio-eran egin ziren (hots, ospitalizatu gabe). Ambulatorioko ebakuntzen %42,2 kirurgia handikoak izan ziren eta denbora laburreko operazio ondoko zaintzak behar izan zituzten, eta %57,8 beste ebakuntza txiki batzuk izan ziren.

9. grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetako ebakuntza kirurgikoen bilakaera. 1999-2003




Iturria: Ospitale-estatistika.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2003. urtean, 1.000 biztanleko 104,1 ebakuntza kirurgiko egin ziren, hau da, Estatu osoko 92,7 ebakuntza kirurgikoen gainetik zegoen urte horretan EAE⁵ (2001. urtea) eta Balear Uharteak eta Katalunia autonomia erkidegoen ebakuntza kirurgikoen azpitik azken hauek ebakuntza mota horretako kopuru handienak izan baitzituzten: 113,7 eta 110 hurrenez hurren 1.000 biztanleko.

Alabaina, azken bost urteetako (1999-2003) ebakuntza kirurgikoen kopurua %11,5 gehitu da ambulatorioetako kirurgia handiei eta ambulatorioetako beste ebakuntza txiki batzuei esker; aitzitik, ospitalizazioa ekarri duten ebakuntzak %3,2 gutxitu ziren aldi horretan nahiz eta gero hurrengo bi urteetan pixka bat gehitu.

10. grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko ebakuntza kirurgikoen bilakaera, anestesia motaren arabera. 1995-2003



Iturria: Ospitale-estatistika.

Anestesia orokorra da oraindik ebakuntza kirurgikoetan gehien erabiltzen dena (%36), gero anestesia lokal-erregionala (%33,6) eta azkenik anestesia lokala (%30,3) erabiltzen dira. Anbulatorioko kirurgiaren gehikuntzak, halaber, anestesia lokal-erregionala pixkanaka gehitzea eragin du; izan ere, anestesia mota hori erabili den ebakuntza kopurua bikoiztu baino gehiago egin da azken zortzi urteetan (1995-2003), baina anestesia orokorraren kasuak %8,7 gutxitu dira.

Sektore publikoan, anestesia lokal-erregionala erabili duten ebakuntzak (%38,1) anestesia orokorrekoak (%33) baino gehiago izan dira; sektore pribatuan kontrakoa gertatu da, ordea.

5.5. Amatasuneko jarduera

2003. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetako amatasun arloan 22.550 emakume ospitalizatu ziren eta hauek guztira 70.676 egun egon ziren ospitalean; beraz, batez besteko egonaldia 3,0 egunekoa izan zen. Ospitale publikoetan erditzeen %88,6 eman ziren eta pribatuetan %11,4.


Guztira 19.191 erditze izan ziren, aurreko urtean baino %5,8 gehiago. Kopuru hori azken hamazazpi urteetako (1987-2003) handiena da eta agirian uzten du 1996. urteaz geroztik amatasuneko jarduera gero eta ugari suagoa izan dela. Ume bat baino gehiagoko erditzeak ere gero eta gehiago dira, aurreko urtearen aldean %12,9 gehiago izan baitira.

OMEk amaren ugaltzeko osasuna baloratzean zesarea bidezko erditze kopurua hartu du kontuan. EAEko ospitaleetan egindako erditzeen %15,6 zesarea bidez egin ziren; kopuru hau OMEk zesarea kopuru onargarri bezala gomendatzen duen %15eko kopurura hurbiltzen da, baina kopuru hori Estatuan egindako zesarea kopuruaren azpitik gelditzen da (2001. urtea)⁶.

Ospitalea publikoa edo pribatua den aintzat hartuta zesarea-indize hori ezberdina izango da. Urteak igaro ahala, EAEko ospitale pribatuetan zesarea bidez egin den erditze kopurua publikoetakoa baino handiagoa izan da; eta 2003. urteko datuek egoera hori berretsi baino ez dute egiten. Bada, ospitale pribatuetako zesarea kopurua %25,5ekoa izan zen (Estatuko batez bestekoa baino pixka bat gehiago) eta publikoetakoa %14,4koa.

6. Ministerio de Sanidad y Consumo. Estadística de Establecimientos Sanitarios con Régimen de Internado 2001.

11. grafikoa: Ume bat baino gehiagoko erditzeen bilakaera eta zesarea bidezko erditze kopurua. 1999-2003



Iturria: Ospitale-estatistika.


6. Jarduera ekonomikoa

6.1. Gaixoak erregimen ekonomikoaren arabera

Ospitaleko asistentzia hartzeko erregimen ekonomikoa aintzat hartuta, 2003. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan ospitalizatutako gaixo gehienak (%79) Osakidetza bidez ospitalizatu ziren, gaixoen %13,4 aseguru-entitate pribatuen bidez eta, tarte handiarekin, gaixoen %2 inguru Ugazaben Mutualitate eta lan-istripuen mutualitateen eta partikularren bidez ospitalizatu ziren.

Ospitale pribatuen kasuan kopuru horiek aldatu egiten dira, hauetan aseguru-entitate pribatuetako gaixo gehiago dagoelako (%48,9) Osakidetzakoetako gaixoak baino (%29,6).

12. grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko ospitale publiko eta pribatuetako egonaldiak, osasun-asistentzia finantzatzen duen entitate juridikoaren arabera (%)




Iturria: Ospitale-estatistika.

6.2. Gastua

Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetako gastua 1.318 milioi eurokoa izan zen (2002. urtean baino %7,4 gehiago), hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko BPGaren %2,8koa. Ospitaleetako gastuaren gehikuntza horrek %2,3an gainditu zuen EAEko ekonomia osoak urte berean izan zuen gehikuntza (%5,1). Ospitaleetako biztanle bakoitzeko gastua, 641 eurokoa, %7,6an gehitu zen 2002. urtean.

Gastu osoaren %95,4 gastu arrunta izan zen eta gainerako %4,6 inbertsioetarako erabili zen. Gastu arruntaren barruan langileen partidak hartu zuen ehunekorik handiena (%64,2), eta gero erosketen gastuek (%27,8). Erosketen gastuen artean nabarmentzekoak dira, antzeko garrantziarekin, osasun-materialerako gastua (%31,9), beste enpresa edo profesional batzuek egindako lanak (%31,1) eta farmaziako produktuak (%30,2).


13. grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetako gastuaren banaketa, kontzeptuka (%)



Iturria: Ospitale-estatistika.

Zentroen arabera, ospitaleen sare publikoak 1.119 milioi euroko gastua izan zuen, guztirakoaren %84,9, eta ospitale pribatuek 199 milioi eurokoa, %15,1.

14. grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko ospitale publiko eta pribatuetako gastu arruntaren banaketa (mila eurotan)



Iturria: Ospitale-estatistika.

Zentro motaren arabera gastu arrunta ezberdina izaten da, batez ere langileen gastuari dagokionez, ospitale publikoetan gastu hau %67,1eko baita eta pribatuetan %47koa. Alde horren arrazoia ospitale pribatuetako langileen egitura berezia da; zentro hauetan mediku gehienak laguntzaileak dira eta euren ordainsaria beste enpresa edo profesional batzuek egindako lanen kanpoko zerbitzuetako gastu moduan hartzen da edo, bestela, aseguru-entitate pribatuek jasotako zuzeneko ordainketa moduan.

Ospitaleen helburuaren arabera egindako gastuaren banaketari dagokionez, gastu horren %91,3 gaixo akutuen ospitaleetakoa izan zen, %5,5 psikiatrikoetakoa eta gainerako %3,2 egonaldi ertain-luzeko ospitaleetakoa.


1999-2003 urteen artean ospitaleetako gastua %29,3 gehitu da, batez besteko urteko tasa pilatua %6,6koa izan da, eta gainerako gastu arruntek izan zituzten gehikuntzarik handienak. Alabaina, ekonomia gehiago hasi zen; beraz, ospitaleetako gastu horren gehikuntzak ez zuen eraginik izan ospitaleetako partaidetzaren ehunekoa EAEko BPGaren gainetik gehitzean. Azken hau, hain zuzen, %3,2koa izan zen 1999. urtean eta 2003. urtean %2,8koa.

6.3. Diru-sarrerak

2003. urtean 1.229 milioi euroko diru-sarrerak izan ziren; 1.200 milioi diru-sarrera arruntak izan ziren eta 29 milioi kapital sarrerak.

2003. urtean, sektore publikoak %90,3an finantzatu zuen ospitaleetako sektorea; eta osasun-prestazioetako finantzaketa gehiena Osasun Sailak egin zuen.

15. grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-prestazioengatikoko diru-sarrerak, 2003. urtean, entitate juridiko ordaintzailearen arabera (mila eurotan)



Iturria: Ospitale-estatistika.

7. Adierazleak. Nazioarteko alderaketak

Sektoreko arlo funtzional ezberdinak neurtzeko ospitaleetako adierazle ugari dagoenez⁷ (hornidura, giza baliabideak, asistentzia-jarduera eta jarduera ekonomikoa), herrialde gehienek ezagutzen dituzten oinarritzko adierazleak bakarrik hautatu ditugu.


7. EUSTAT: Datu-bankua: 2003ko Ospitale-estatistika. Ospitaleetako adierazleak.

7.1. Oheak 1.000 biztanleko

2003. urtean, 1.000 biztanleko 3,9 ohe zegoen; eta azken hiru urteetan kopuru horrek ez du gorabehera handirik izan. Adierazle hau Estatuko 1.000 biztanleko 3,6 oheren kopuruaren (2001. urtea)⁸ gainerik dago.

Adierazle hori ELGEko beste herrialdeetako asistentzia-helburuarekin alderatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoan gaixo akutuei arreta emateko dagoen ohe kopurua Ameriketako Estatu Batuetako, Irlandako eta Estatuko ohe kopurutik hurbil dagoela ikusiko dugu; alabaina, kopuru hori 25 kideen Europako Batasuneko ohe kopurutik (4,2) urrun dago.

16. grafikoa: Gaixo akutuentzako ohe kopurua, 1.000 biztanleko. 2003




* 2001eko datuak

** 2002ko datuak

Iturria: Eco-Salud OCDE 2004, 3. edizioa, Health facility (Eurostat), Indicadores Hospitalarios (INE) 2001. urtea eta Ospitale-estadistika (Eustat) 2003

Ospitale psikiatrikoetako ohe kopuruari dagokionez, 2003. urtean EAEn 1.000 biztanleko 0,9 ohe egon ziren zentro horietan. Kopuru hori, hain zuzen, 25 kideen Europako Batasuneko eta Erresuma Batuko ohe kopurutik oso hurbil dago (bi kasutan 0,85eko balioak baitaude), Estatuko batez bestekotik gora eta Txekiar Errepublikako, Finlandiako eta Frantziako batez bestekotik behera.

17. grafikoa: Ospitale psikiatrikoetako ohe kopurua, 1.000 biztanleko. 2003



* 2001eko datuak

** 2002ko datuak

Iturria: Health facility (Eurostat), Indicadores Hospitalarios (INE) 2001. urtea, eta Ospitale-Estatistika (Eustat) 2003. urtea


7.2. Okupazio-portzentajea

Aurreko alderaketak ospitaleetako baliabideei buruzkoak izan dira, eta zehatzago hornidura motari buruzkoak (ospitaleetako oheak), baina aurrerantzean oheak nola erabiltzen diren alderatuko da horretarako ondoko oinarritzko adierazleak erabiliz: okupazio-portzentajea, errotazio-indizea eta batez besteko egonaldia.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2003. urtean, okupazio-indizearen batez bestekoa %82,3 izan zen. Izan ere, 1984. urtean %76,9ko okupazio-indizea erregistratu zen eta harrezkero ehuneko hori pixkanaka gehitzen joan da aipatu %82,3ra iritsi arte. Estatuan⁹, eskura dagoen azken kopuruak (2001ekoa) indizea %79,9koa zela erakusten du.

Okupazio-portzentajea ezberdina da asistentziaren helburua aintzat hartzen bada: gaixo akutuentzako ospitaleetan indizea %77,3koa da baina egonaldi ertain-luzekoetan eta psikiatrikoetan (egonaldia luzea denez) indizeek (%83,3 eta %97,3 hurrenez hurren) batez bestekoa gainditzen dute. Zentroa kontuan hartzen bada, ospitale publikoek (%85,6) pribatuek (%75,3) baino ehuneko handiagoa dute.

9. INE. Estadística de Indicadores Hospitalarios 2001.

18. grafikoa: Gaixo akutuen ospitaleetako oheen okupazio-portzentajea. 2003. (%)


* 2000ko datuak

** 2001eko datuak

***2002ko datuak

Iturria: Eco-Salud OCDE 2004, 3. edizioa eta Ospitale-Estatistika 2003 (Eustat)

ELGEko herrialde gehienetan %75etik gorako okupazio-indizeak daude (gaixo akutuentzako oheak), baina herrialde hauen arteko aldeak handiagoak dira indize hori kontuan hartzen denean. Euskal Autonomia Erkidegoa hurbilago dago okupazio-portzentaje baxuagoak dituzten Estatuarengandik eta Austria eta Italiarengandik, portzentaje altuagoak dituzten Erresuma Batu eta Irlandarengandik baino.

7.3. Ospitaleetako egonaldien batez besteko iraupena

Sarritan batez besteko egonaldia eraginkortasunaren indize bezala hartu da, egonaldi laburrak aldi bakoitzeko kostua gutxituko luke eta. Alabaina, adierazle hori kontu handiz erabili behar da, batez besteko egonaldia gutxitzean berrartzeko indizea gehituko balitz (Estatistika honek ez du hori jasotzen), gaixotasunaren ondoriozko aldiaren kostua ere gehitu ahal izango litzatekeelako.

2003. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetan gaixoen batez beste 8,7 egun egin zituzten (Estatuan 8,8, 2001. urtean¹⁰); zentro publikoetan 8,4 egun eta pribatuetan 9,4. Adierazle hori nabarmen aldatzen da ospitalearen helburua kontuan hartzen denean; gaixo akutuen ospitaleetan 5,8 egunekoa da, egonaldi ertain eta luzekoetan 32,4 egunekoa eta psikiatrikoetan 225,1 egunekoa.

Azken hamazortzi urteetan zehar ospitalizatutako gaixoen batez besteko egonaldiak laburtzeko joera izan du: 1984. urtetik batez beste 13,4 egun egiten zituzten gaixoen baina gero kopuru hori gutxitzen joan da, 2001. urtean 8,6 eguneko batez besteko egonaldia izanik eta 2003an 8,7 egunekoa. Joera hori, bestalde, gure inguruko beste herrialde batzuetan ere eman da, hurrengo taulan ikus daitekeen bezalaxe.


7. taula: Batez besteko egonaldiaren bilakaera.1984-2003

	1984	1986	1988	1990	1992	1994	1996	1998	2000	2001	2002	2003
Austria	14,6	14,8	13,8	12,8	11,8	11,3	10,5	9,3	8,6	8,5	8,1	..
Danimarka	11,4	10,6	8,9	8,2	7,8	6,4	6,6	6,3	6,0	5,9	5,7	5,4
Finlandia	20,8	19,4	19,9	18,2	16,6	13,1	11,6	10,9	10,3	10,6	10,4	..
Frantzia	18,9	17,4	16,3	15,1	14,3	14,3	13,8	13,4	13,2	13,5
Hungaria	13,7	13,3	12,9	12,6	12,0	11,3	10,3	9,5	8,9	8,7	8,5	..
Irlanda	8,7	8,4	8,1	7,9	8,0	7,7	7,5	7,6	7,4	7,5	7,6	..
Italia	12,4	12,1	11,7	11,7	11,2	10,8	9,4	8,0	7,7	7,6
Polonia	13,2	12,8	12,6	12,5	11,8	11,1	10,6	10,1	8,9	8,4	7,9	..
Portugal	12,0	13,5	12,2	10,8	10,1	9,5	9,8	9,0	9,4	8,9
Espania	13,6	13,1	12,7	12,2	11,5	11,3	10,0	9,4	9,0	8,8
Suedia	22,2	20,8	19,1	18,0	10,1	8,1	7,5	6,6	6,4	6,4	6,2	..
Turkia	7,6	7,2	6,9	6,9	6,9	6,5	6,3	6,0	5,9	5,8	5,6	..
Erresuma Batua	16,9	19,6	18,0	15,7	12,5	10,2	10,3	8,9	8,4	8,3	8,1	..
Ameriketako Estatu Batuak	9,4	9,1	9,3	9,1	8,8	8,2	7,5	7,1	6,8	6,7	6,6	..
Euskal Autonomia Erkidegoa	13,4	13,8	13,6	13,2	12,3	10,8	9,9	9,3	8,8	8,6	8,9	8,7

Iturria: ECO-SALUD OCDE 2004, 3. edizioa eta Ospitale-Estatistika 2003

7.4. Errotazio-indizea

Errotazio-indizea (ohe bakoitzean arreta eman zaion gaixo kopurua) oso lotuta dago batez besteko egonaldiarekin; horrela, egonaldi luzeari errotazio-indize txikia dagokio, eta alderantziz. Hori dela bide, 2003. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan ohe bakoitzean batez beste 34,7 gaixori eman zitzaion arreta, baina egonaldi ertain-luzeko ospitaleetan eta psikiatrikoetan 9,4 eta 1,6ra (hurrenez hurren) jaitsi zen arreta emandako gaixo kopurua. Zentroaren arabera, sektore publikoak (37,4) batez beste pribatuak (29,1) baino gaixo gehiagori ematen dio arreta.

19. grafikoa: Errotazio-indizea gaixo akutuentzako oheetan. 2003


* 2001eko datuak

** 2003ko datuak

Iturria: ECO-SALUD OCDE 2004, 3. edizioa eta Ospitale-Estatistika 2003

Estatuan, 2001. urtean ohe bakoitzean batez beste 33,1 gaixori eman zitzaion arreta, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan (34,5) baino gaixo gutxiagori; salbuespen bakarra psikiatrikoak dira, hauen kasuan Estatuan¹¹ ohe bakoitzean gaixo gehiago izaten baita (1,9 Estatuan eta EAEn 1,5, 2001. urtean).

Gaixo akutuen prozesuak hartzen dituzten oheen errotazio-indizean alde handiagoak ematen dira herrialdeen artean. Austriak (46,9) eta Irlandak (47,1) Euskal Autonomia Erkidegoaren (48,6) antzeko indizea dute; Frantzia eta Herbehereak, ordea, gugandik urrunen daudenak dira ohe bakoitzean beste inork baino gaixo kopuru txikiagori ematen baitio arreta.


7.5. Zesarea bidezko ebakuntza kirurgikoak, 1.000 jaiotzako

Ospitaleetan bizirik jaiotzen diren 1.000 ume bakoitzeko zesarea bidez jaiotakoen kopurua osasun-adierazle bat da, "osasuna guztiontzat Europako eskualde-programa" izeneko programaren jarraipenean sartzen dena, "amaren osasuna hobetu" helburuarekin.

Europako herrialdeetan (euron informazioa dugunetan, alegia) adierazle horrek izan duen bilakaerak erakusten du 1990-2002 urteen artean zesarea bidezko jaiotzen maiztasuna pixkanaka gehitzen joan dela.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan adierazle horrek Italia eta Luxemburgekoarena baino gehikuntza motelagoa izan du, eta azken urteetan zesarea bidezko jaiotza kopuru txikiena duten herrialdeekin (Finlandia, Danimarka) batera gelditu da.

20. grafikoa: Zesarea kopurua, bizirik jaiotzen diren 1.000 ume bakoitzeko. 2002



Iturria: ECO-SALUD OCDE 2004, 3. edizioa eta Ospitale-Estatistika 2003


7.6. Ospitaleetako arretak BPGarekiko sortutako gastu osoa (%)

BPGaren gaineko ospitaleetako osasun-gastuak, sektore horrek produkzio jardura guztiaren gainean daukan pisua erakusten du. Hain zuzen, 2003. urtean gastu hori BPGaren %2,8koa izan zen Euskal Autonomia Erkidegoan.

Nazioartean, bi herrialde-multzo bereiz daitezke; multzo handieneran %2 eta %3 arteko indizea duten herrialdeak daude, eta beste multzoan %3,5etik gorako indizea dutenak sartzen dira (Frantzia, AEB, Danimarka eta Suitza).

Euskal Autonomia Erkidegoa aipatu lehenengo multzoan sartzen da, BPGean ospitale sektoreko ekarpen txikiena duten herrialdeen gaineratik (hala nola: Eslovakiar Errepublika, Espainia, Hungaria eta Luxemburg), Kanada eta Txekiar Errepublikaren maila berean eta Austria, Finlandia eta Suediarengandik oso hurbil (guztiek %2,9ko indizeekin).

21. grafikoa: Ospitaleetan emandako arretaren gastu osoa, BPGaren portzentaje gisa. 2003



*2003ko datuak

Iturria: ECO-SALUD OCDE 2004, 3. edizioa eta Ospitale-Estatistika 2003

Oharra: erabili ditugun kontzeptuak, definizioak eta metodologia hurrengo helbide elektronikoan dituzu: www.eustat.es/document/metodo_c.htm